...eta kitto!
946 zkia.
2015-X-16



# MENDIKO produktuak Herrian BISITARI

KEIN GROUP
C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74
Email: keingroup@keingroup.com

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA
Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK
- Auzo komunitaeen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA
- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA
# IZEN-ABIZENEKIN



## ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA





Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza
eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
**Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
**Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**
Inplantologia Masterreko Irakaslea.
**Lleidako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea.
**Salamancako Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Anibal Alonso Doktorea.**

## ETENGABEKO ORDUTEGIA

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara

**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00** etara

**Eibarko Dendarien Elkartea**
**ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ**
**Galdetuiguzu!**

asociación de comerciantes de eibar
eibarko dendarien elkartea



**MUTUAK ETA ASEGURUAK**
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
**Galdetuiguzu!**











IRAZABAL
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**
**Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR** - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KOPIN.- Umeen jolaserako panpina. *“Kopiñak laga baiño lehen egin zetsen ezkontzia”*. Zentzu figuratuan, kargu handia izan arren, berez beste ezkutuko norbaiten esanetara edo aginduetara dagoena. Gaztelerazko ***'hombre de paja'.*** *“Jabe papeladia egin arren, kopin bat da".*
KOPINKERIXIA.- Txolinkeria, kaxkarinkeria, arinkeria, zentzu gutxikoak egiten duena. *"Kopinkerixia erizten detsat, zuek darabizuen autuari".*

# eskutitzak

## ESKERRAK EMANEZ AGIFES-EKOEI EGITEN DUTEN LANARENGATIK

Orain dela egun batzuk ustekabean joan zitzaigun Angel Iriondo Etxaberekin egin duzuen lana eskertzera nator. Bere laguntzaile edo albokoa izan naiz eta azken hiru-lau urtetan Agifesen berarekin egin duzuen lana ezin dut laga errekonozidu gabe. Jakizue hor artatzen dituzuenek izaten dituzten arazoetan laguntzeaz gain, euren familiei eta tutoreei ere neurri berean laguntzen diezuela. Egiaztatuta dut eta, Angelekin bezala beste guztien kasuan ere, askoz ere animatuago ikusten ditudala eta abantaila handia egiten dutela nabaritzen dudala. Zuekin hasi zenetik Angelek beste ilusio bat izan zuen bizitzeko eta, horrez gain, azken aldian oso animatuta zegoen tokiz aldatzeko proiektuarekin ere. Horregatik, nire eskerrik beroena langile eta egoiliarroi beste guztioi eskaintzen diguzuen laguntzagatik. Segi horrela!

***MARI TERE BARRENETXE GARAGARZA***

## BIDEBARRIETA KALEKO OBRAK

Lehenik eta behin: Bidebarrieta kaleko auzokideak zoriondu nahi ditugu, azkenik eurek esperotako lanek aurki hasiera izango baitute. Gainera bizilagunekin adostutako lanak izango dira: pegoretarako bideak konpontzea, zoladura berriztatzea, euri-ura batzeko eta saneamendurako sare berria egitea, LED motako luminariak ipintzea eta lorezaintza lanak egitea. Aurrekontua ere politita da, 572.591,54 eurokoa.

Baina, gu ere kale horretakoak izanik, esan behar dugu badagoela guztiz kezkatzen gaituen aspektu bat: obrak enpresa pribatu batek egingo dituela. Dagoeneko ohitura den honetara, edozein lan pribatizatzera, ez gara ohitzen.

Badakigu lan arloan Udalak konpetentzia gutxi duela, baina hortik ardurak ez hartzera alde handiegia dago. Izan ere, gure herrian 2.200 lagun daude langabezian, %17,32a, eta Udalak, nahi izanez gero, badu egiten duena baino gehiago egiterik. Udala ezin da enplegatzailea izan, horrelako lanak bere gain hartuta? Gu baiezkoan gaude. Horregatik Udalean ordezkaritza politikoa duten alderdi guztiei zera eskatzen diegu: azter dezatela herrian egin behar diren lanen aurrean, noiz hartuko dituen bere gain Udalak, horretarako beharreko kontratazioak eginez, eta noiz ez (lanen zailtasunengatik edo). Azken horietarako, lizitaziora aterako diren lanetarako, klausula sozialak ezarri ditzala: herrialdeko konbenioa aplikatzea eta errespetatzea, ingurumen irizpideak, lan osasuna, euskararen presentzia, aukera berdintasuna, ezgaitasunak dituzten pertsonak,...

LAB sindikatuak Udalari bere prestutasuna adierazten dio horren inguruko gogoetan -hots lanak pribatizatu ala ez- parte hartzeko.

***EIBARKO LAB***

## ASTEAN ESANAK

“XX. mendeko 60. hamarkadan Bizkaiak eta Gipuzkoak milioi eta erdi biztanle zituzten gutxi-asko, eta 400.000 etorkin iritsi ziren bertara. Euskara zenbatek ikasi zuen? %2ak. Hori da 60. hamarkadako inmigrazioak ekarritako aldaketa lingustikoa: 8.000 euskal hiztun, 392.000 espainol hiztun. Euskara ikastea ez da aniztasunaren osagarria Euskal Herrian. Eta ez dut etorritakorik deitoratzen, haien euskalduntzea antolatzeko tresnarik ez edukitzea baizik”

(PAKO ARISTI, IDAZLEA)

“Palestinatik ihes egindakoak hartzeaz gain, milioi bat siriar salbatu dituen herrialdea da Libano. Bertako egoera gaiztotzen ari dela-eta, Atzerri ministroak iheslariei Siriako leku seguruetara joateko eskatu die. Baina *ondoko* herrialdean ez dago horrelako lekurik eta siriarrak eskale bihurtzen ari dira Beiruten”

(FAWZIA SOLTAN, KAZETARIA)

“XX. mendean itsasoaren maila urte bakoitzeko bi milimetro igo da, azken 7.000 urteetan baino azkarrago.

(ALEJANDRO ZEARRETA, EHUKO GEOLOGOA)

2100ean Plentzian izango den muturreko fenomeno bakoitzak 10 eta 12 milioi euro arteko kostua izan lezake.

(ELISA SAINZ DE MURIETA, BC3KO IKERTZAILEA)

50 urte barru udako prezipitazioak %10 eta %30 artean urri litezke; muturreko fenomenoak, %20 handitu”

(ROBERT MONJO, FIC-EKO KLIMATOLOGOA)

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.
**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Jardunaldi Mikologikoak
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** ***8.050 ale.*** **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak* DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA

# Eduardo Zubiaurre Uri Batzarreko buru

**EAJ-PNVko Uri Batzarra Eduardo Zubiaurrek zuzenduko dabela emon eben aditzera** aurreko asteko barixakuan Batzokixan eskindutako prentsaurrekuan. Agerraldixan esandakuaren arabera, Eibarko EAJ-PNV *"gaztetu eta barritzeko"* prozesuak aurrera dirau eta, ildo horretan, herri maillako exekutiban kide barrixak sartu dittue. Lehenagotik be Uri Batzarrian eguazen Karlos Gonzalez eta Maria Jesus Agirregomezkortari gehittu jakozen barrixak hónetxek dira: Julian Eraso, Oskar Alberdi eta Asier Albizu ziñegotzi-ohiak; Iker Laka, Ivan Iriondo eta Asier Feijoo EGI-ko kidiak; eta Igone Lazpita, Josu Agirre, German Anitua eta Alexander Arriola. Eduardo Zubiaurre taldeko buruarekin, hamairu lagunek osatzen dabe gaur egungo Uri Batzarra. Eduardo Zubiaurrek azaldu ebanez, *"gure lehentasuna eibartarren alde biharrian segitzia da eta, bide horretan, Eibarko ekonomixari berpizten lagunduko detsan Plan Estrategikua lantzen dihardugu, egoeriaren diagnostikua egin eta gauzak hobetzeko zer egin bihar dan zihezteko"*. Horrez gain, herritarren eritzixak eta proposamenak jasotzeko prest daguazela gogoratu eben. Horretarako, nahi dabenak Batzokira (Ego Gain 1, 1D) zein udaletxian daken bulegora jo leike edo, bestela, telefonoz deittuta (943120616 Batzokixan, 943708430 udaletxian) edo e-mailla idatzitta (pnv-eibar@euskalnet.net / pnv@eibar.eus) helarazteko aukeria be badago.




*Zubiaurrerekin hamahiru lagunek osatzen dabe gaur egungo Uri Batzarra.* SILBIA HERNANDEZ

# Bilduren proposamenak "eibartar askoren mesederako"




**Gorka Errasti eta Igone Lamarain EH Bilduko ordezkarixak aurtengo udal aurrekontuan euren alderdixak proposatuta onartu ziran** proiektuen inguruko baloraziñua egin eben aurreko asteko barixakuan: *"Urtia amaitzeko pare bat hillebete baiño ez dira falta eta, horregaittik, 2015eko aurrekontuaren negoziaziñuan guk proposatuta onartu ziren proiektuak zertan diran azaldu nahi dogu"*. Herrittarren ongizatea helburu daken ekimenen artian *"laster"* Jazinto Olaben zabalduko daben ludotekarekin ekin zetsen errepasuari: *"Umiak jolasten ikasteko espazio bat sortzeaz gainera, biharrezkoa da Eibarren esperientziak konpartitzeko eta guraso-barrixentzako formaziñorako gune bat sortzia. Hori dala eta, espazioa bezain garrantzitsua izango da edukixa"*. Horrekin batera, andrak eta kirola ardatz dittuan azterketia egitteko biharrian hasitta daguazela argittu eben: *"Kirolian emakumiaren parte-hartzia aztertzeko diagnostikua egittia proposatu genduan, bazterketa barik kirola praktikatzia ahalbidetuko daben neurrixak hartu ahal izateko. 2016rako neurri horrek gauzatzen dittuan plana egittia gomendatuko dogu"*. Sutien kontrako sistemaren "arrakasta" be azpimarratu eben: *"2015ian gitxieneko adiña 80 urtetara jaistia eta 102 urtetara igotzia erabagi da. Asmua baldintza hórretan daguazen 530 etxietara aillegatzia da eta 2016xan plana bikotietara zabaltzeko aukerak aztertuko dittugu"*. Gaztiendako alokairu programia eratzen dihardu ela gaiñeratu eben eta *"laster prest izatia"* espero dabe. Martxan ipiñi barri dan diru-laguntza programetako bat, RGIa kobratzen daben famelixetako umiak eskolatik kanpora antolatzen diran jardueretan parte hartu ahal izateko laguntzak, euren ekimenez abiarazi dittuela be gogoratu eben eta, amaittu aurretik, Sakun inguruan ortu ludikuak martxan ipintziar daguzela emon eben aditzera: *"Pozik gagoz proiektuak martxan edo laster martxan ipiñiko dittuztelako. Eibartar askok jasoko dittue onurak eta aurrerantzian be herrittarrak oiñarri daken ahalik eta proiektu gehixen martxan jartzeko biharrian jarraittuko dogu"*.

# Erosketa txartelen irabazliak

**Iraillian Eibarko Dendarien Elkarteak bere txartela promozionatzeko kanpaiñan**, 250 euroko erosketa txartel bana irabazi dabe erretratuan ikusten dittuzuenak: Maite Lete (X-Treme), Carmen Baroja (MN ileapaindegixa), Jaione Sologaistua (Benicoba), Rosa Sarasketa (Leder), Margarita Portu (Chiquitin) eta Guadalupe Gomez (Multiopticas). Zorionak daneri!



*250 euroko erosketa txartel bana irabazi dabe erretratuetakuak.* LEIRE ITURBE

## Lelo-lehiaketako sarixak banatu dittugu

**Dendariak Berbetan programaren barruan, erosketak euskeraz egitera animatzeko asmoz** antolatutako lelo-lehiaketako sarixak banatu zittuan …eta kitto! Euskara Elkarteak eguaztenian. Dendariak eta Ostalariak Berbetan Batzordiak aukeratutako sei goiburu finalisten artian, Facebook bittartez boto gehixen jaso dittuan esaldixa "Atean ez gelditu, euskeraz aritu!" izan da eta egilliak, Oihana Chico Rojok, 100 euroko erosketa-txartela jaso eban Ainhoa Alonso, Ditareko dendarixaren eskutik. Gaiñera, bere esaldixa Gabonetan, Euskeraz Primeran! kanpaiñarako erabilliko dabe. Horrez gain, Facebooken bozkatu dabenen artian Kantabria jatetxian lagun birendako afarixa zozketatu da eta irabazlia Ainhoa Luque izan da. Sarixa Lorea Zubiaurrek emon zetsan. Zorionak irabazlieri eta parte hartu dozuen guztieri eskerrik asko zuen laguntasunarengaittik!



*Oihana Chico eta Ainhoa Luke, erdian, saria jasotzen.*

## Atzegiren kanpaiña barrixa

**Aurreko asteko eguenian aurkeztu eben Atzegi alkartiaren aurtengo sensibilizaziño kanpañia gurian.** "Ezetz asmatu nolakoa den nire bizitza?" goiburuari jarraittuta, *"kanpaiñarekin adimen urritasunaren inguruan gizartian daguazen aurreiritziekin apurtzia eta pertsona bakotxaren bizimoduaren inguruko irudi errealago bat eskintzia"* nahi dabela azaldu eben. Aurkezpen ekitaldixan, Atzegiko ordezkarixekin batera, aurtengo kanpaiñako protagonistetako batek, Luciak hartu eban parte. Irungo Sergiorekin batera, hórrek gazte bixon irudixa erabilliko dabe kanpaiñan, *"euren adibidiari begiratuta, jende askok barneratuta dittuan estereotipuekin amaitzeko"*. Dagoeneko hasi dira Lucia eta Sergio protagonista dittuen kartelak banatzen eta laster herriko denda eta kale guztietan ikusiko dittugu. Interneten be kanpaiñari eskindutako atzegi.org/horrelakoadenirebizitza atarixan hainbat baliabide ipiñi dittue eskuragarri: kanpaiñaren harira grabatu daben bideua, gaixaren inguruan norberaren ezagutza neurtzeko aukeria emoten daben jokua eta beste hainbat gauza. Horrekin batera, #HorrelakoaDaNireBizitza traola erabilitta, jendia argazkixak bidaltzera animau nahi dabe.



## autuan

### 70 URTIAK OSPATZEN

Urte horretan jaixotakuak "uzta bikaiña" osatzen dabe eta, horregaittik, azaruaren 25ian mahasti artian ospatuko dittue 70 urtiak. Ospakizunera juan nahi dabenak aurretik 70 euro sartu biharko dittu Kutxabanken, 9115407812 kontu zenbakixan.

### 1937-XAN JAIXOTAKUAK

Azaruak 13an ospatuko dabe euren jaixa 1937xan jaixotakuak, Unzaga hotelian alkarrekin bazkalduta. Jaixan parte hartu nahi dabenak 55 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 5109009115389087 kontu zenbakixan, izen-abizenak ipiñitta.

### ILLEAPAINDEGIXA ZERBITZUA

Unzagako jubilau etxiak bazkidiendako illeapaindegi zerbitzua eskinduko dau. Zerbitzua emoteko prest daguazen autonomuak edo enpresak jubilau etxeko bulegora jo leikie euren kurrikuluma edo eskintza aurkezteko. Urriaren 30era arteko epia dago.




---

## JESUSA BELAUSTEGI URIONABARRENETXEA

(2015-X-11)



*Ez da agur esaten*
*norbait maite duzunean*
*Maitasuna ez delako joaten*
*bihotzean gorderik dagoenean*



## asteko datua

**60,000**

euro batu dittu Udalak 2014an eta 2015ian erabilli bariko 500 etxietan IBI zerga %50-eko errekarguarekin kobrau eta gero; EAJ-k neurrixa bertan behera laga eta alarguneri, 65 urtetik gorakueri eta gitxieneko soldatia 1'5 aldiz gainditzen ez dabeneri %50 jaistia proposatu dau.



# Lorategixak barritzen

**Udalak Bidebarrieta kaleko lorategixak goittik behera barriztatzeko asmua** dauka, bestiak beste oiñezkuendako pasabidiak hobetzeko asmuarekin. Horrekin batera zoladura berriztatzia, euri-ura batzeko eta saneamendurako sare barrixa egittia, LED argixak ipintzia eta lorezaintzari lotutako biharrak egittia dago aurreikusitta, han inguruan bizi diranak eskatutako hobekuntzak aintzakotzat hartu eta gero. Konponketa-biharrak 572.591 euruan (BEZ barne) etara dittue lehiaketara eta biharren arduria hartzen dabenak hiru hillebeteko epian amaittu biharko dittu. Eskintzak aurkezteko epia urriaren 27ra arte egongo da zabalik. Informaziño gehixagorako Pegoran galdetu edo eibar.eus webgunian begiratu.

# Peruko nekazarixeri laguntzeko bazkarixa

**Bixar bigarrenez egingo da "Jana ez da txantxa" bazkarixa Untzagan,** Peruko Piurako hainbat nekazari-komunitateri laguntzeko dirua batzeko asmoz. Martitzenian aurkeztu eben ekitaldixa antolatzaillien (Alboan, Egoaizia eta Aldatzen) izenian jardun eban Leire Morketxok, Miguel de los Toyos alkateak, Idoia Sarasketa Gizartekintza ziñegotzixak, Aitor Elizegi eta Mireia Alonso sukaldarixak eta Asier Albizuk, egun horretan sukaldian lagunduko daben alkarte gastronomikuen izenian.

Bazkarixa 14.00xetan hasiko da eta Mireia Alonso sukaldarixak prestatuko dau arroza, Peruko lagun baten laguntasunarekin. Gaiñera, 12.00xetan umiendako sukaldaritza taillarra be emongo dau. Aitor Elizegi sukaldarixa pozik agertu zan *"laguntzeko aukeria eskintziagaittik. Nere ustez goi sukaldaritzak horren ondo bazkaltzeko aukerarik ez dakeneri hobeto jan deixen laguntzeko balixo biharko leuke"*. Horrekin batera, sukaldari eibartarrak aurreratu ebanez, *"Mondragon Unibersidadian ikasten daben peruar batek hango errezeta eta osagaixak erabillitta arroza prestatuko dau, nahi dabenak hangua nolakua dan ezagutzeko aukeria izateko. Eta umien taillarrian frutak eta txokolatia erabilliko dittugu"*.



*Martitzeneko aurkezpenaren irudixa.*

Ekitaldixak alkarte gastronomikuen, Auzolanen eta beste alkarte eta erakunde batzuren laguntza dauka eta hórreri guztieri eskerrak emon zetsazen, *"bazkarixa antolatzia posible egittiagaittik"*. Txartelak Kultu, Koskor, Kontent, Guridi eta Depor tabernetan, Villalba supermerkauan eta Aldatze ikastetxian dagoz salgai, 10 eurotan (7 eurotan ume, jubilau eta langabetuendako). Aurten, gaiñera, "Plato Zero" dalakuarekin, txartela erosi eta bazkarira juan barik be lagundu leike.

# Gabonetako otarra aurkeztu dau ...eta kitto!-k

**Eguaztenian aurkeztu eban …eta kitto! Euskara Elkarteak aurtengo Gabonetan zozketatuko daben otarra.** Maider Aranberri alkarteko idazkarixak azaldu ebanez, *"horrelako otarra zozketatuko dogun hirugarren urtia izango da eta, aurreko bixetan bezala, aurten be El Corte Inglesak eskindutako produktuekin osatu dogu otarra. Horregaittik …eta kitto!-ren izenian eskerrak emon nahi detsadaz El Corte Inglesari, atzera be emon deskun laguntasunagaittik"*. Azaldu ebenez, *"oparituko dogun otarra ez da makala. 2.000 euroko balixua dauka eta era guztietako produktuak, danak kalidade daukaz: telebistaz gain, jateko eta edateko ugari: urdaiazpikua, gaztaia, txorizua, solomua, bildotsa, turroia, bonboiak, txokolatia, txanpaiña, ardaua, likoriak…"*.




*Haraiñegun egin zan otarraren aurkezpena.* SILBIA

El Corte Ingleseko Joana Fernandezek, bestalde, pozik agertu zan …eta kitto!-ri laguntzeko aukera izanagaittik: *"Ahal dogun neurrixan beti ahalegintzen gara herrixan egitten diran jardueretan parte hartzen eta laguntzen eta, horregaittik, …eta kitto!-ri be pozik laguntzen detsagu"*. Aurkezpenian esan ebenez, *"gaur bertan hasiko gara boletuak saltzen, aurreko urtietan bezala euro baten. Herriko 50 bat denda, taberna eta abarretan erosteko moduan egongo dira eta, horrez gain, kalera be urtengo gara saltzera"*. Zozketarako txartelak abenduaren 15era arte egongo dira salgai eta zozketa abenduaren 16xan egingo da Toribio Etxebarria kaleko El Corte Ingles parian. Otarra be laster ipiñiko dabe ikusgai denda horretako eskaparatian. Herritarreri be eskerrak emon detsez: *"Azken urte bixetan herrittarren aldetik jaso dogun erantzuna oso ona izan da, eta aurten be ez dogu gitxiago espero, laguntza eta babes horreri esker eusten detsagulako gure urte osoko programiari, proiektueri, aldizkarixari eta bestelako guztieri"*.




AITOR ALBERDI *(Gure Esku Dago):*



*Aurreko ekainaren 21ean Gure Esku Dago herri ekimenak deituta egin ziren ekitaldi arrakastatsuak eta gero, erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimenduak "Erabakiaren Aroan" sartu ginela esan eta, horrekin batera, uda ondoren erabakia ekarriko zuen norabidean pauso berriak emango zirela agindu zuen. Eta agindutakoa beteta, Erabakiaren Aroaren lehen urratsa "Eskura" prozesua abiaraztearekin batera eman da eta Aitor Alberdi Eibarko Gure Esku Dago taldeko kideak prozesuaren nondik norakoak azaldu dizkigu elkarrizketan.*

# "Orain herritarrei dagokie dinamikaren zoru komunari ekarpenak egitea"

***- Nola sortu da abiarazi berri duzuen Eskura prozesua?***

Honen guztiaren abiapuntua GED-k antolatuta herritarrek osatutako giza katea izan zen eta, horri esker, herri ekimena ezagutzera ematea lortu zen. Hurrengo urtean, berriz, giza katearen bitartez agertu zirenak ehuntzeko sasoian sartu ginen. Baina puntu horretara ailegatuta, GED horrelako ekitaldiak antolatzeko zerbaiten geratuko ote zen ala, hortik haratago, beste funtziorik izango ote zuen galdera sortu zen eta horri erantzuteko beharrari ekin zioten nazional mailan eta horrela sortu da GED dinamikaren 'zoru komuna' delakoa jorratzen duen dokumentua. Aurreko udan zehar herri batzordeen artean adostutako lehen "Eskura" zirriborroa sortu eta gero, irailaren 26an prozesuaren aurkezpen publikoa egin zen eta orain herritarren txanda da, herritar ororen ekarpenak jaso eta bozkatzeko epea azaroaren 9ra arte zabalik egongo da eta.

***- Ekarpen horiek egiteko nora jo behar dute herritarrek?***

Beste ezer baino lehen, ekarpenak egin ahal izateko saretuta egon behar da, nahitaez bete beharreko baldintza da hori. Orain arte GED-k Gure Esku Dagok antolatutako ekimenen batean parte hartu dutenen kasuan, litekeena da dagoeneko saretuta egotea. Eta saretuta ez dagoena oso erraz saretu daiteke, gureeskudago.eus webgunean horretarako dagoen atalean sartuta. Behin baldintza hori beteta, ekarpenak egiteko bide ezberdinak daude zabalik: lehendik saretuta dagoen jendeak postaz jaso du dokumentazioa; interneten, gureeskudago.eus/eskura/ helbidean eskuratu daiteke; eta horrez gain, Amañako Azkena tabernan, Urkizuko Juanito-Manuel tabernan eta Kultu, Depor eta Gure Lekun ekarpenak egiteko dokumentazioa laga dugu, nahi duenak hara joan eta ekarpenak egiteko aukera izateko. Azaroaren 9ra arte egongo da horretarako aukera.

***- Eta nolako ekarpenak egin daitezke?***

Eztabaida abiatu eta gidatzeko dokumentuak 8 orritan jasotzen ditu GEDn egitekoa, jarduera, antolamendua eta finantzamenduaren inguruko proposamenak eta herritarrek horiei egin beharko dizkiete ekarpenak, bakoitzaren aldamenean dauden zenbakiak markatuta: 0 bat ere ados ez egotekotan, 1 muinean ados egon arren azaltzeko moduarekin bat ez etortzean eta 2 erabat ados egotekotan. Kontuan izan behar da dokumentuak jorratzen duena GED dinamikaren 'zoru komuna' dela, hau da, edozein euskal herritar demokratak, bere pentsamoldea edozein dela ere onartzeko moduko planteamendua. Horregatik, erabilitako hitzak eta esaldiak apropos dira leunak. Azken batean, bakoitzak aztertu beharrekoa bere pentsamoldea testu horretan jasota dagoen ala ez da. Izan ere, bere pentsamoldeak eta testuak dioena bat eginez gero, hori beste askorekin partekatu ahal izango du eta, hain zuen ere, gure erabakitzeko eskubidea gauzatuko bada euskal herritarrok partekatzen dugun zoru komun hori eta horren gaineko elkarlana beharko ditugulako.




# Felipe Iriondo Gandiaga

*2015eko urriaren 12an hil zen*

*Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.*



*Gure herriko* ***XVII. Jardunaldi Mikologikuak*** *egingo dira asteburu honetan, betiko moduan Eibarko Klub Deportibuak antolatuta.* ***Gaur*** *bertan hasiko dira, Portalean 19.00etan eskinduko daben hitzaldixarekin.* ***Bixar****, bestalde, perretxikotara urtengo dabe goizian, gero arratsaldian sailkatzeko. Eta* ***etzi****, goizian hasi eta bazkaltzeko ordura arte, horrek mendiko produktuak dastatzeko aukeria izango da. Tartian, baiña, bixar arratsalde berezixa izango da Toribio Etxebarria kalian, ELAko gaixoeri laguntzeko ekitaldi mordua antolatu dabe-eta kaleko tabernekuekin hasitta.*



*Domeka goiz eta eguerdian egongo dira perretxikoak ikusgai T. Etxebarria kalean.* LEIRE ITURBE

# ELA gaixueri laguntzeko Jardunaldi Mikologikuak

Pedro Arrillaga Aranzadiko Mikologixa sekziñoko presidentia eta zuzendarixak emongo dau gaurko hitzaldixa Portalean. "Los hongos alucinógenos en la cultura de los pueblos" gaixaren inguruan jardungo dau eta baitta perretxikuen bueltako gauza berezixak kontauko.

Bixar goizian, bestalde, goizeko 08.15-ian Ego-Gainetik urtenda, bi autobus juango dira Araba aldera: *"Badira 3-4 urte Otxandioko Oletara juaten garala eta Marieta da bigarren tokixa.. Perretxiko mordua aurkitzen dogu toki bixetan, leku seguruak dira"*, diño Egoitz Elduaien Klub Deportiboko Mendi batzordeko presidentiak. *"8 urtetik hasi eta 6. maillaraiñoko ikastolako neska-mutillekin juaten gara; txikixaguekin be bai, euren gurasuekin batera"*. Goiz horretan jasotako espezie guztiak Klub Deportibora eruaten dira eta han jarraixan aukeraketia eta sailkapenarako tartia izaten da, Aranzadi Zientzia Alkartiaren laguntzarekin. *"Tolosa aldetik etortzen jakuz laguntzera"*, diñue. *"Edurne Pasaban mendizaliaren osaba bat beti etortzen da, eta berarekin informatikua eta beste batzuk"*. Lan horretan arratsalde guztia emoten dabe Deporren, *"16.00etan hasi eta gaberdiraiño askotan"*.

**Arratsalde betea biharkoa**

Urtero Jardunaldi Mikologikouetan jasotzen dan dirua Deporrek alkarte bati emoten detsa eta aurten ELA gaixotasuna dakeneri laguntzen detsan alkartiari emotia erabagi dabe. Hori dala-eta, Ainhoa Amorrostak eta Guadalupe Ibañezek Deporrekuekin adostu dabe aurtengo programaziñua, iñoiz baiño betiagua izango dana. Horko aktibitatietan hartuko dabe parte, gaiñera, T. Etxebarria kaleko taberna guztiak. 17.00etatik aurrera hainbat kirol praktikatzeko aukera izango da, ELAren eskutik: *"Ametsa tabernan golf-a egitteko aukeria egongo da, xakean egitteko taula haundixa be izango da, errugbixan jarduteko aukeria eskinduko da... Eskaladia egitteko aukeria be ez dogu baztertzen"*, diño Amorrostak. *"Pegatina batzuk be jarriko dittugu salgai, Pantxika astuaren irudixarekin, eta itsulapikuak Toribio kaleko denda eta tabernetan"*. Horrez gain, bi karpa kokatuko dira, kamisetak saltzeko eta aktuaziñuetarako.

Ohikuari jarraitzeko, bestalde, T. Etxebarria kaleko ia taberna guztietan perretxiko-pintxuak dastau ahal izango dira: *"Baitta Kulturalian be"*, diñue Deporrekuak. Dastaketa hori 18.00etan hasi eta gabeko 22.00ak arte iraungo dau. 19.00etan trikipoteua hasiko da Eibarko Trikitilari Gaztien partaidiekin. Eta, musikarekin jarraitzeko, 20.30xetik aurrera Dee Versios taldiak kontzertua eskinduko dau. 22.00ak bueltan Eibar Foball Taldeko jokalarixak siñatutako denboraldi honetako kamisetia zozketatzeko ordua helduko da. Eta, jaixarekin jarraitzeko, herriko trikitilari gaztiak girotutako erromerixia izango dogu.

**Domekan perretxikuak erakusgai**

Etzi goizian, 10.00etatik aurrera, jaso eta aukeratutako perretxiko espezieen erakusketa egingo da T. Etxebarrian. Horrekin batera, produktu mikologikuak eta gastronomikuak egongo dira salgai Mikel Lasaren eskutik. Jardunaldixekin amaitzeko, perretxikuen dastatze-bazkarixa izango da Deporren.

## MARIA GARAGARZA OSORO

(2015eko urriaren 12an hil zen, 87 urterekin)



*Markina Etxebarritik / "Goikone" baserrira / Eibarrera ezkondu zinan / bizitza ziklo barrira*
*maitasunaren fruituak / laster agertuko dira / alaba baten jaiotza / irribarre ta dizdira*
*familiakin gozatuz / biloba danak begira / ai amama egun danak / horrelakoak balira*
*ez zaitugu inoiz ahaztuko / hainbeste oroimen badira / maitasuna ekarri dozu / gure bihotzen erdira*

**ETXEKOAK**

Domekan, hilaren 18an, eguerdiko 12.00etan, bere aldeko IRTEERA-MEZA ospatuko da Karmengo parrokian.

*Ainhoa Amorrostak, bere esperientziatik abiatuta, borrokan dihardu ELA (esklerosis lateral amiotrofikua) gaixotasuna daken -eta izango dabenen- kondiziñuak hobetzeko. Gizonarekin bizitakuak indarra emon detsa bere egoerian izan leikezeneri laguntzeko eta buru-belarri dihardu sensibilizaziño kanpaiñetan laguntzen eta proiektuak bultzatzen.*

## AINHOA AMORROSTA:

# “ELAri aurre egitteko protokoluen biharra dakagu”



Amorrosta aurtengo San Kristobalgo jaixetan Manu Fernandez bere senarra zanari egin zetsen omenaldixan.

***– Lehen pertsonan eta etxian bertan bizi izan dozu gaixotasuna. Zer dauka berezitzat ELAk?***

Ez da hain berezixa: gaixotasunak urte pillua daroia gure artian eta gero eta jende gehixago harrapatzen dau. Berezixa bihurtzen dabena da ELAren tratamendurako ez dala hainbeste aurrera egin, abantailla gitxi ikusten dirala nondik datorren jakin eta zelako erremedixuak ipintzerako orduan. Geldo doia inbestigaziño hori.

***– Gaixueri zelan eragitten detsan, hor be aldiak dagoz, ezta? Bariante asko?***

Gaixo bakotxa errealidade desbardiña da: gaixotasunaren progresiñuak ez detsa arau bati jarraitzen. Hori bai, beti be bizitza kalitatiaren mesedetan gaixuak zaintza asko bihar izaten dittu. Gaixotasun degeneratibua da eta, tratamendurik ez dakanez, inpotentzia haundixa sentitzen dozu burruka horretan.

***– Azken aldixan izan da aurrerapenik, nahiz eta nahikuak ez izan?***

Gaixuekin-eta egin dira ikerketa batzuk, azken aldixan estudixo bi. Euskal Herri maillan perspektiba onak be piztu dira muskularki hobeto erantzun leikian medikamentu batekin.

***– ELA aurrian dakazula jakitteko badago hasierako sintomarik?***

Lehen sintomak desbardiñak izaten dira, baiña badira orokorraguak diranak: berba egitterakuan arazuak masailletan, jateko orduan nabari leikianak, bernetan dardarak moduan...

***– Azken aldian gaixotasunaren aldeko kanpaiñak zabaldu dira, kalian presentzia gehixago izateraiño...***

Bai, kanpora etara da jendiari erakusteko, bihar zan-eta. Esklerosi multipliak, esaterako, tratamendu gehixago dauka luzera eta baitta bizi-kalidade hobia be eskintzen dabenak.

***– Administraziñuak zelan erantzuten dau? Non ikusten dittuzu hutsunerik handixenak?***

Protokoluak prestatu barik daguazela oindiok, hor dago hutsune haundixa. Adela alkartiak proiektuak prestatzen dittu urtero eta hor bagoiaz gauzak egitten. Baiña Diputaziñotik, Osakidetzatik, Seguridade Sozialetik... emon leikiezen laguntzetan badago zer hobetu.

***– Zuk bizi dozuna ikusitta, zer gomendatuko zenskixo jendiari gaixotasunaren aurrian lehelengo pausuak emoteko?***

Hasteko, interneteko informaziñua baztertzeko, nahasgarrixa da-eta. Adela alkartian, bestalde, informaziño asko dake eta emongo detsuez. Psikologua, fisiologua eta logopeda dake eta euren laguntasuna oso biharrezkua da. Osakidetzak be eskintzan dau beria, AransGi-k... Dana dala, famelixaren eta lagunen artian gaixua ondo lagunduta egotia da printzipalena, ingurune aproposa sortzia, batek bakarrik ezin detsalako gaixotasunari aurre egin. www.adelaeuskalherria-com helbidian eta 943-245609 telefonuan lagunduko detsue.







# TEEN AJEAK

**Aitor Olabarria 24 urteko arkitektura ikasle eibartarrak BALENCIAGA EZARTZEN proiektuan hartu zuen parte 2012-2013 ikasturtean, Donostiako Arkitektura Eskolako beste 21 ikaslerekin batera. BALENCIAGA EZARTZEN Amaia Casado eta Naiara Zuazua irakasleen zuzendaritzapean buruturiko eserleku bilduma da eta, erakusketa desberdinetan egon ondoren (horietako bat Balenciaga museoan), bilduma horretako hiru eserleku ikusi ahal izango ditugu gaurtik hasita San Andres jaiak arte J. Etxebarria kaleko Doroti jantzi-dendan.**



Aitor Olabarria:

## "Balenciagaren esentziatik aulkiak sortu ditugu"

***- Aulkiak eta Balenciaga: zergatik aukeratu zenuten gai hori?***

Jakina da arkitekto askok aulkiak eta beste eratako altzariak diseinatzen dituztela. Aldi berean, Balenciaga modaren arkitektotzat hartzen da. BALENCIAGA EZARTZEN proiektuan horrek zenbateraino egia duen erakusten saiatu ginen. Moda ikono baten jantziak hartu, eta bere esentziatik aulkiak sortu genituen, unibertsitatean sorkuntzarako tarte handia dagoela erakutsiz. Dedikazio handia behar izan du proiektuak, sortze prozeduraz gain, moda eta egitura kontuetan ere barneratu garelako.

***- Nolakoa izan zen sortze-prozesua?***

Hasteko arkitekto ezagunen aulkiak aztertu genituen. Ondoren, lantalde bakoitzaren eserlekuaren erreferentzia den soinekoaren patroiak atera genituen eta baita maketa txiki bat eraiki ere. Material desberdinak aztertu, soinekoaren esentzia atera eta, azkenik, diseinu definibora iritsi ginen. Cristobal Balenciaga museoarekin elkarlanean ibili ginen.

***- Eserlekuen bilduma erakusketa derberdinetan egon da...***

Alhondigak hartzen duen Zientzia Astean egon zen. Ondoren, Balenciaga museoko erakusketaren parte izan zen hilabete batean, eta gainera La Encartada museoan eman zuen uda osoa, Moda eta Tradizio Garaikidearen Topaketen barruan. Horretaz gain, Getxoarten izan da.

***- Eta orain, bilduma osatzen zuten 11 eserleku horietako hiru Eibarren bertan ikusi ahal izango ditugu, ezta?***

Bai, nire amaren dendan egongo dira ikusgai (Julian Etxeberria kalean dagoen Doroti jantzi-dendan). Horietako eserleku bat nik egin nuen, Peru Arana klasekidearekin batera. Dendan panelak jarriko ditut patroi, plano tekniko, soinekoaren historiarekin... Gu Balenciagaren "zaku" soinekoan inspiratu ginen eta guztia kartoiez eginda dago. Aulkiak ez dauka hankarik eta bi piezakin eginda dago.

***- Erakusketaz aparte, une honetan zertan diharduzu?***

Arkitekturako 5 urteak egin ditut eta iaztik karrera amaierako proiektua prestatzen dihardut. Eibarko autobus-geltoki berriari buruzkoa da: geltoki intermodala da, trengeltokiaren ondoan kokatu dut-eta. San Agustin parrokiaren ondoan dagoen sarreratik abiatuta, inguru horretan dauden tailer eta etxe zahar batzuk botatzea planteatzen dut, autobus-geltokia bertan gelditzen den espazioan eraiki ahal izateko. Autobusak bariantetik sartu eta Pagei kaletik irtengo lirateke. Autobus- eta trengeltokia estalita doaz, transitableak dira eta pasarela bat planteatzen dut konexio berri bar sortzeko Matxariarekin; honek Matxaria guztiz berriztatzeko aukera emango luke. Karrerako proiektu bat da eta ekainean aurkeztuko dut.



*Aitor Olabarria eibartarrak diseinatu du erdian agertzen den eserlekua. Aulkiak "Doroti" jantzi-dendan ikusi ahal izango dira.*

*Eibarko San Juan Martin liburutegiak Hizkuntzak Praktikatzeko Bilerak ekimena sustatu zuen 2013. urtean. Talde txikietan bilduz eta talde bakoitzeko dinamizatzaile batekin, frantsesa, ingelesa eta alemana dohainik praktikatzeko aukera ematen du proiektu honek. Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo liburutegia izan da hizkuntzen ikasketa alor praktikora eramaten.Atzerriko hizkuntzak praktikatzeko proiektua aurkeztu du ikasturte honetan ere, Eibarko liburutegiak. 2013an sortutako ekimenak, gehienez 25 pertsonako taldeak biltzen ditu eta dinamizatzaile baten laguntzaz, akademia edo eskoletan ikasitako alde teorikoa praktikara eramatea du helburu.*



# "Atzerriko hizkuntzak barneratzeko egunerokotasunean praktikatu behar dira"

**Eva Alberdi programaren arduradunak azaldu duenez,** liburutegian betidanik eman zaio hizkuntzen ikasketari garrantzia berezia: *"Interes gune bat daukagu atzerriko hizkuntzak ikastera animatzen diren guztientzat. Bertan, ikasketa metodoak, mota guztietako materiala edo hainbat hizkuntzatan idatzitako nobelak aurki daitezke".*

**"Bileretan ez da edukirik ikasten, praktikatu egiten da bakarrik"**

## Bileren sorrera

Liburutegian bildutako materiala, akademietako gramatika edo eskolan ikasitako hiztegia, hizkuntza bat ikasteko nahikoa ez dela konturatu ziren proiektuaren sortzaileak. Zarauzko taberna batean elkartzen zen praktika-taldearen eredua jarraituz, Hizkuntzak Praktikatzeko Bilerak ekimena sortu zuten. Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegien sareko lehenengoa izan da Eibarko San Juan Martin liburutegia. Herrian izandako parte-hartzea eta hauen gogobetetzea ikusita, Ermukoa eta Iurretakoa izan ziren, besteak beste, ideia hau jarraitu zuten liburutegiak.



**"Hizkuntza hauek kalean praktikatzea zaila da eta zarauztarrena ideia bikaina iruditu zitzaigun"**

## Funtzionamendua eta izen-ematea

Hizkuntzak praktikatzeko bileretan gehienez 25 lagun elkartzen dira talde bakoitzeko eta dinamizatzaileak prestatutako gaien inguruan jarduten dute; eguneko albisteak, praktikatzen ari diren hizkuntzan dauden aldizkariak… Eva Alberdik azpimarratu du bileretan ez dela edukirik ikasten, praktikara mugatzen direla bakarrik. Taldeak hizkuntzaren inguruko ezagupenaren arabera osatzen dira eta ez ikasketen arabera. Ingelesa, frantsesa eta alemana egon dira aukeren artean aurreko urteetan, baina, aleman taldea osatzea lehenbiziko urtean bakarrik egin ahal izan zen. Dinamizatzaile falta eta parte-hartzaile falta dira arazo nagusia. Hala ere, hizkuntza hau praktikatzeko gogoa izan dutenek, euren kabuz gestionatutako bilerak egin dituzte eta aurten ere bide horri heldu diote. Ingelesezko mintza-taldeak asteazkenero biltzen dira liburutegiko gela polibalentean 19:00etatik 20:30era. Eta frantsesa praktikatzen dutenak ostegunetan ordu berean.

Praktika taldeetan parte hartzeko 16 urtetik gorakoa behar da izan eta liburutegiko webgunean eman daiteke izena. Dohainekoa da eta epe barruan izena eman dutenen artean zozketa bat egiten da, taldeetako kopuru maximoa errespetatzeko. Hala ere, bileretara 3 aldiz huts egiten duena kanporatua izango da eta beraz, zozketak kanpoan utzi dituztenek aukera berria izango dute.

## DINAMIZATZAILE BILA

Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin egindako praktika hitzarmenari esker, atzerriko hizkuntzak menperatzen dituzten ikasleek dinamizatzaile postua eskura dezakete kredituen truke. Aurtengo ikasturterako ez dago dinamizatzailerik oraingoz, eta unibertsitateko ikasleei deialdia egin diete proiektuan parte hartzen duten kideek eta baita arduradunak ere. Interesa duten ikasleak fakultateko praktika departamentuarekin jarri behar dira kontaktuan. Aurreko urteetan dinamizatzaile lanetan aritu diren ikasleek esperientzia oso baliagarria izan zela adierazi dute.

# OSASUN GIDA

## Dentistak

**arat** Hortz-Klinika



ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clínicas dentales UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1.esk. Telf: 943 20 18 51

---

RPS 04/02

**IRAZABAL** clínica dental

Irribarreetan adituak

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

---

RPS: 53/13

**bista eder** clínica dental - hortz klinika

**Asko dira** gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 — 943 70 00 82

---

hortz-klinika

**B. IZAGIRRE**

clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. — Tel. 943 70 23 85

---



**invisalign**

Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

**Mª Dolores Olaizola Doktorea**

RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

---

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. — Tfnoa: 943 20 72 17

---



**GASTESI** Hortz-Klinika

Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma — 943 70 00 90

---

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. — 943-702896

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
**ERREHABILITAZIOA**

- Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- Min-Unitatea
- Inkontinentzia urinarioak
- Kirol medikuntza
- Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) — Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) — Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetik klinika



**abontza** clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea — 943 206 044

## Fisioterapia

**ANE MENDIA**

970 Kolegiatu zbkia.

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Arragueta, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

---

*HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...*
*... deitu 943-206776 telefono zenbakira*

## Ginekologia

**Mª Jose Ruiz de Porres**
**DOKTOREA**

– Bularren azterketa
– Minbiziaren azterketa prebentiboa
– Zitologia
– Baginako eta sabelaldeko ekografia
– Mamografiak
– Bularretako ekografia
– Nerabeentzako arreta
– Menopausiadunentzako arreta
– Dentsitometriak
– Haurdunaldiaren kontrola
– Kontrazepzioa

**T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57**

## Okulistak

**Oftalmologoak**
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82
Oftalmologoak Centro de Oftalmología Avanzada

**Recalde**
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

· **Presbiziaren kirurgia.**

R.P.S. 234/13
Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

• Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
• Atzazkal oinbanduak
• Oinazpiko garatxoak (papilomak)
• Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**
**PODOLOGOA**
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
**943 12 14 93 / 696 555 208**

Bidebarrieta, 48
**EIBAR**
943 203050

Erdiko kale 54
**ARRASATE**
943 799746

**PODOLOGOA**
**Erdiko klinika**
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**
Maider
Lopez
Etxeberria
*Arragueta 2 Bis-B, Behea C*
*Tfnoa. 943 82 04 88*
*65 Kolegiatu zbkia.*

**PODOLOGO**
T.ORTOPEDICO
*Iñaki Rivero Zabaleta*
*Calbeton, 4 - 2.*
*(Untzagako dorrea)*
*Tel. 943 20 86 41*

## Psikologoak

**AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

**Coro Ortíz de Urbina**
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)
- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer
Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**
PSIKOPEDAGOGOA
Tel. 605 75 75 06
- Lengoaia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

SEXOLOGIA ZENTROA
**Arantza Alvarez**
**Psikologoa-Sexologoa**
1517 – GZ Kol. zkia.
www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88
KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

**AROR**
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)
***Ana Artamendi***
- *Afasiak*
- *Dislexiak*
- *Disfoniak*
- *Hizmoteltasuna*
- *Dislaliak*
- *Eskola arazoak*
- *Degluzio atipikoa*

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA
943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B,1° 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

*Lorena Izaguirre Garcia*
*PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA*
Errebal, 15 - 1. ezk.................EIBAR
Zuberoa, 4.......................ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

**Psikologia klinika** eta **Psikoterapia zentroa**
*Oscar Mondragon Lili*
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023



## Ferreirok squash titulua berretsi zuen Arrasaten

**Aurreko asteburuan Arrasaten jokatutako squash Euskal Ligako zirkuitoaren barruko torneoan** iaz lortutako garaipena berretsi zuen Alberto Ferreiro Klub Deportiboko ordezkariak. Emaitza horrekin, 2014ko amaieratik euskal ranking-ean duen postu gorenean jarraitzen du eibartarrak; Sergio Salgado taldekidea, bestalde, hirugarren sailkatu zen Arrasaten finalerdietan Ferreirorekin galdu ondoren eta aipatutako ranking-ean postu berean dago. Klub Deportiboko Miguel Campanillas (Kontsolaziozko txapelduna), Josu Gallastegi (11.a) eta Aitor Sanchez ere izan ziren torneoan. Hilaren azken asteburuan Sestaoko Torneoa izango dute hurrengo erronka.

## Kalamua Korrikalari Taldeko hirukotea Demandasaurus Trailean

**Hiru etapako mendi lasterketa jokatu zen aurreko asteburuan Burgos aldeko Salas de los Infantes** herrian eta han izan ziren gure herriko hiru ordezkari zapatuan zazpi kilometroko lasterketa, domekan maratoi erdia eta astelehenean 31 kilometroko proba egiten. Aitzol Jimenez laugarrena izan zen (4h19'29") eta Santi Santamaria 29.a (5h04'13"); Igor Fernandezek, KKTko hirugarrenak, ezin izan zuen proba amaitu gihar arazoengatik. Desnibel gutxiko lasterketa izanda, proba oso azkar joan zen, *"ia guztia pistatik egiteko modukoa. Antolakuntza, bestalde, zoragarria lehen edizioa izateko"*, eibartarrek ziotenez.






## Iñigo Gisasolak laugarren txapela lortu zuen ehizan

**Diana ehiza elkarteko kidea aurkari guztiak baino gehiago izan zen Arabako El Castillo kotoan jokatutako Gipuzkoako txapelketan.** Laugarren aldia da txakurrekin egiten den ehiza txikiko txapelketa horretan nagusitzen dela, horrela bost garaipenekin marka duen Manuel Etxebesterengandik garaipen bakarrera geratuz. Aurrez zonaldeetako probetan sailkatutako 50 ehiztarien arteko lehian, eibartarrak sei eper harrapatzea lortu zuen, Loatzo elkarteko Mikel Jimenezek eta Erniopeko Xabier Mujikak baino bat gehiago.

## Aitor Hernandezen lehen garaipena Orduñan

**Ermuko txirrindularia erraz nagusitu zen Txirrindularitzako Euskal Federazioko Challengearentzako puntuagarria** zen lehen proban. Ia lokatzik izan ez zuen asteleheneko ziklo-kros lasterketan Hernandezek aurrera egin zuen lehen itzulitik eta bera jarraitzen ahalegindu ziren Adrian Garciak eta Ismael Estebanek amore eman behar izan zuten Specialized taldeko ordezkariaren aurrean. Orduñan irabazi aurretik, bezperan C1 UCI mailako Albiko proban lehiatu zuen Aitor Hernandezek eta, Frantziako Koparako proba puntuagarrian, seigarren postua eskuratu zuen Clement Venturinik irabazitako lasterketan.



## Kluben Arteko partiduak Astelena frontoian

**Gaur hasiko da Kluben Arteko torneoa Klub Deportiboko pilotarientzat Astelena frontoian jokatuko diren** norgehiagoka biekin. 19.30ean abiatuko den jaialdian, alebin mailako buruz-burukoa jokatuko dute Mikel Camina eibartarrak eta Bergarako ordezkariak; bigarren partiduan, bestalde, senior mailako neurketa izango da, Agirresarobe-Lantz eta Azpeitiko bikotearen artean. Herriko beste ordezkariek kanpora joko dute: Azkargorta, Sanchez eta Abalos infantil mailako txapelketan eta Narbaiza-Zubizarreta bikoteak Arrasaten izango duen erronkari aurre eginez.



# Asier Cuevas herri-lasterketako hirugarren edizioa jokatuko da hilaren 24an




**Aurreko edizio biei jarraituz, oraingoan ere Eibarko kaleek osatuko dute gorabehera gutxiko ibilbidea.** Distantzia luzeko munduko eta Europako txapeldun-ordea behar den bezala omentzeko aukera polita izan daiteke hurrengo zapatuan eskaintzen zaiguna. Lasterketa Klub Deportiboaren aurretik hasiko da 18.00etan eta, hori bai, parte hartzeko aldez aurretik izena eman beharko da (bezperarako, urriaren 23ko) eta 10 euro ordaindu. Lasterketa hiru mailatan dago banatuta -juniorrak, absolutoak eta beteranoak- eta, horrez gain, aukera izango da taldeka ere parte hartzeko. Azken proba hori lau korrikalarik osatutako talde mistoekin jokatuko da, honako ezaugarriekin: gutxienez neska batek edo mutil batek parte hartu beharko du eta, horrez gain, laurak 30 segundoko tartean helmugaratuko dira derrigorrez. Sariak izango dira absoluto mailako hiru lehenentzat eta maila bakoitzeko irabazlearentzat, proba amaieran herriko denda eta tabernek eskainita zozketatuko diren hainbat oparirekin batera.

**Aukera gehiago izena emateko**

Aurten hainbat aukera eskaintzen zaizkie parte hartu nahi duten korrikalariei. sailkapenak.com web orrian dago inskripzio orria eskuragai eta baita Deporren bertan eta Eibarko kirol guneetan. Horrez gain, aukera dago ere Deporreko bulegotik pasatzeko eguaztenean (19.30etik 20.30era) edo web orriko dokumentua beteta eta 10 euro tabernako barran entregatzeko. Bestalde, txip-ak eta dortsalak zapatuan bertan, hilaren 24an, jaso ahal izango dira honako ordutegian: goizez, 11.00etatik 13.00etara, eta arratsaldez, 15.15etik aurrera.

# Eibarrek Sevilla hartuko du bihar Ipuruan (18.45)

**Ez da neurketa erraza izango bihar arratsaldekoa Mendilibarrek gidatzen duen taldearentzat**, sailkapenean atzetik badago ere, Europan jokatzen dihardUen Emeryren taldea normalean Eibar baino indartsuagoa beharko luke-eta. Bestalde, hurrengo domekan (hilaren 25ean) Nou Camp-en Bartzelonaren aurka jokatu beharreko partidurako bidaia antolatu du Viajes Premier-ek: irteera goizeko 06.00etan egingo dute egun berean eta partidua amaituta itzuliko dira. Prezioa 55 eurokoa da eta partidurako sarrera bermatuta izango dute (jakina, ez dago prezio horren barnean). Autobusa osatzeko, 45 lagunek eman beharko dute izena gutxienez.





# Orbean inoiz ikusi den waterpolorik onenaren aurrean

**Bihar arratsaldeko 15.00etan hasiko du denboraldia Urbat Waterpolo Taldeak,** Euskal Herriko 1. mailan bide berria hasteko Fortuna Tximistarri hartuta Orbea kiroldegian. Mailari eustea da eibartarren helburu bakarra eta horretarako, ibilbidean indar handiko aurkariak izango dituztela jakitun, betiko eta harrobiko jokalariekin talde lehiakorra osatu dute. Waterpolorik onena ikusteko aukera izango da aurten Orbean.

Isasi, 31
943 207 737
Egunero 06.00–22.00
Etorri! Zure etxian egongo zara!!
Astelehenetik ostegunera
PINTXO-POTEA!
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTANDO

San Andres Gozotegia
tartak
enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73





"Teknologia berrien erabilera osasuntsua eta arriskurik gabekoa" goiburua duen hitzaldia egongo da urriaren 20an, 19.00etan, ...eta kitto!n (Urkizu 11). Hitzaldia PantallasAmigas-eko Oihana Orcajo hezitzaileak eskainiko du, eta helduei eta hezitzaileei zuzenduta dago.

## OIHANA ORCAJO (PantallasAmigas)

# "Haur eta helduek teknologia berriak elkarrekin ezagutzea gomendatzen dugu"

**- Nola laburtuko zenuke Eibarren emango duzun hitzaldiaren edukia?**

"Etxeko hizkuntzan", Internet zer den, nola funtzionatzen duen, zein aukera eta arrisku dakartzan eta gure burua nahiz gainontzekoena nola babes dezakegun azalduko dut. Hau guztia eskoletan eskaintzen ditugun saioetan egiten dugun eran azalduko dut, haur eta gazteei azaltzen diegun modua ikus dezaten.

**- Hitzaldia heldu eta hezitzaileentzako da. Nola aurre egin ahal zaie teknologia berriek ekarri dituzten arazoei?**

Orokorrean emakumeen aurkako eraso kasuetarako nahiz Ziberbullying, Sexting (eduki erotiko edo pornografikoen bidalketa) edo Grooming (ziberakoso sexuala) kasuetarako, prebentzio moduan ematen ditugun aholkuak berdinak edo antzekoak dira. Hau da, etxeko komunikazioak berebiziko garrantzia duela uste dugu. Haur eta gazteekin gai hau lantzea garrantzitsua da. Internet tresna interesgarria eta baliagarria dela azaldu behar zaie baina arriskuak eta arazoak ekar ditzakeela ere aipatu behar zaie. Arriskuak zein diren azaldu eta, noizbait euren burua edo inguruko norbaitena egoera horietan ikusiz gero, zer egin behar duten eta zein pausu jarraitu beharko luketen ondo azaltzea litzateke egokiena.

**- Zenbat urterekin hasten dira sare sozialak erabiltzen? Zer nolako mugak jarri behar dizkiegu gure seme-alabei?**

Urtetik urtera sare sozialak erabiltzen hasteko adina jaisten ari da. 10 urterekin hasten dira *whatsapp* erabiltzen gurasoen mugikorretik lagunekin komunikatzeko edota jaunartzean (jaunartzean mugikorra omen da opari izarra), gabonetan, urtebetetzeetan gurasoek, izeba-osabek... oparitutako mugikorretik. Anai-arreba zaharragoak dituzten adin horretako batzuk *Instagram* edo *Snapchat* ere erabiltzen dute.

Mugak? Komunikazioa, negoziazioa, ulerkortasuna eta euren ondoan mundu hau ezagutzea dira normalean aholkatzen ditugunak. Debekuek ez dute emaitza oso erangikorrik ematen, etxeko mugikor, tablet edo ordenagailutik egin ezin dezaketeena beste nonbaiten egitea lortzen baitute. Horregatik diogu, garrantzitsua dela mundu hau elkarrekin ezagutzea, erabili nahi dituzten sare sozialei buruz hitz egitea, konfidantza eskaintzea, arriskuak azaltzea, aztertzea eta erabakiak negoziatzea.





# Kontzertu-asteburua Ez Dok-en

**Asteburórako kontzertu bi antolatu dituzte Ez Dok tabernan.** Gaur The Romanticos (Tolosa) taldekoek blues doinuak eskainiko dituzte eta bihar, berriz, Ermuko Stai Zitto-ren rockaren txanda izango da. Ermuarrek aurtengo Euskadi Gaztea maketa lehiaketan boto gehien eskuratu duen taldeari saria jaso dute. Emanaldi biak 23.30etan hasiko dira eta, betiko moduan, sarrera librea eta doan izango da.



# 13 sagardo botilak banatuta

**Sagardo Egunaren inguruan antolatutako selfie lehiaketako argazki irabazlea Mikel Solasek** partekatutako lagun taldearena izan zen. Koadrila irabazlearen izenean Idurre Iriondo, Victoria Atxotegi eta Olaiz Agirrebeña etorri ziren sari bila eguaztean eta, argazkian ikus dezakezuen moduan, pozarren eraman zituzten Gorenak bereizgarria duten 13 botilak, bana sagardotegi bakoitzeko.

# Molto Vivace-k zabalduko du Musikaldia

**Eibarko XXIII. Musikaldia zabaltzeko, gaur 20.30ean Molto Vivace, Pablo Zubiaurre eta Iñaki Orbegozo eibartarrek** beste musikari batzuekin batera osatutako boskoteak kontzertua emango du Coliseoan (5 euro). Emanaldiaren lehen zatian bi tronpetak, tronpak, tronboiak eta tubak osatutako "Molto Vivace Brass Quintet" boskoteak hainbat estilo eta generotako moldaketak eskainiko ditu. Eta bigarren zatian metal boskoteari bi perkusiokole gehituko zaizkio "BraZZtet Molto Vivace Brass Band" delakoa osatu eta entzule guztiak dantzan ipintzeko moduko doinuak eskaintzeko: jazz, reggae, swing, bugui-bugui, hip-hop, ska, blues, funky, latin salsa, pop-rock-fusion, bossanova, disco… denetarik joko dutela aurreratu dute. Musikaldiaren barruan eta 47. Tolosako Abesbatza Lehiaketaren harira, urriak 26an Letoniako "Emmils Darzins" abesbatzaren kontzertua hartuko du Coliseoak eta 28an, berriz, Suediako "Stockholms Musikgymnasium" abesbatzarena. Emanaldi biak 20.30ean izango dira eta sarrerak 5 euro balio du.



*Bi eibartar daude Molto Vivace taldean.*

## laburrak

### SOLASALDIA ARMERIAN

**Astelehenean 19:00etan "Ondo egindako lana" programaren barruan saio berria egingo da Armeria Eskolan, euskeraz: Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabel eta Jagoba Arrasate foball entrenatzailea arituko dira berbetan, euren ibilbide profesionalei buruzko gogoeta eragiteko asmoz.**

### ZUZENDARITZA KLASEAK

**Jose Miguel Laskurainek "Banda, orkestra, abesbatza eta talde instrumentalak zuzentzeko teknika" ikastaroa emango du azaroko zapatuetan (7, 14, 21 eta 28an), goizez, Bergarako Musika eta Dantza Eskolak antolatuta. Izena emateko azken eguna urriak 30 izango da. Informazio gehiagorako: 943765780.**

# Liburu eta Disko Azoka zabalik

**Euskadiko Liburu Azoken Batzordeak udalaren laguntzarekin antolatutako** Eibarko Liburu eta Diska Azoka gaur zabaldu dute. Aurten azokako postuak beste plazan, Untzaga jubilatu etxearen aldekoan ipini dituzte, baina betiko moduan literatur arloko lanik berrienak deskontu bereziarekin eskainiko dituzte. Hilaren 25era arte egunero zabalik egongo da, goizez 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 21:00etara (asteburuetan ordu erdi beranduago itxiko dute).



*Bihar zabalduko den Azokarako postuak.* SILBIA HERNANDEZ



# Ardo eta txakoli artean Berbetan

**Mikel Garaizabal enologoaren eskutik eguaztenean egindako ardo-dastaketa saioa arrakastatsua** izan zen benetan. Hogei bat lagun erakarri zituen …eta kitto! Euskara Elkarteak Berbetan programaren barruan antolatutako saioak. Elorrioko adituak jatorri-deitura duten Arabako Errioxako ardoaren eta Getaria, Bizkaia eta Arabako txakolinen ezaugarri bereizleak azaldu zizkien batutakoei, horiek probatzen joan ahala.




# Eibar foball taldeari omenaldi bikoitza

**Eibar Kirol Elkartearen 75. urteurrena dela eta, Sostoa Abesbatzak eta Cielito Musika Bandak kontzertua** emango dute domekan, 12.30ean Coliseoan eta Udalak foball taldeari omenaldia egiteko aprobetxatuko du emanaldia. Talde armagina Lehen Mailara igo izana saritzeko, udalak "Txopitea eta Pakea" eskulturaren erreplika emango dio Eibar foball taldeari, bere sorreraren 75. urteurrenaren harira antolatu duten kontzertu berezian. Ekitaldirako sarrerak 2 eurotan ipini dituzte salgai eta gaur 21:00etatik 22:00ak bitartean eta domekan ekitaldia hasi baino ordubete lehenagotik Coliseoko leihatilan eskuratu daitezke. Internet bidez ere eros daitezke, kutxabank.es webgunean.


*Kontzertua Coliseoan eskainiko dute domekan, eguerdiko 12.30ean.*



# Errepublikako andra olerkariak

**Atzo zabaldu zuten "Errepublikako emakumeen omenaldia. Emakume olerkarien memoria historikoa berreskuratuz" erakusketa** Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan. Domekara arte zabalik egongo den erakusketaren harira, bestalde, biharko emanaldi poetiko-musikala antolatu dute, Banarte Antzerki Taldearen laguntzarekin: 20.00etatik aurrera Andrea Uña, Mª Angeles Igartua, Adolfo Castaños, Maite Lorenzo eta Rafa Herce olerkariekin batera Paco Marin kantautoreak jardungo du.

# Basatxerri dastaketarako izen-ematea

**Urriaren 27rako antolatu den basatxerri produktoen dastaketan parte hartu nahi dutenek** hilaren 23ra arteko epea daukate izena emateko. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako ekitaldian hainbat txerriki (urdaiazpiko, kabezada, txorizo eta saltxitxoi kuratuak), txakoli, sagardo eta trufa pateak eta Ezpeletako piparrarekin egindako patea dastatzeko aukera izango da, besteak beste. Saioa ...eta kitto!-ren egoitzan (Urkizu, 11 solairuartean) izango da, 19:00etan hasita eta parte hartu nahi dutenek 3 euro ordaindu beharko dute. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko 943 20 09 18 telefonora deitu daiteke.




# Nuria eta Sofia eibartarrak Elgetan



**Domekan Elgetako Espaloia kafe antzokian "Colon...izando" umorezko antzezlanean** Cristobal Colon-en alderik dibertigarriena ezagutzeko aukera izango da, 19:00etatik aurrera eta antzezlanaren aurretik Nuria eta Sofia eibartarrek musika emanaldia eskainiko dute. Sarrerak 10 euro balio du (aldez aurretik erosita, 8 euro; interneten erosteko sartu entradium.com/es/entradas/colon-izando helbidean). Bihar, bestalde, 16.00etatik aurrera Ipur sagardotegian joko dute.

K21
MUGICA
ITURGINTZA
Aire Egokitua, Iturgintza,
Gas instalazioa, kalefakzioa,
petrolio-produktuak, bainuen
erreformak eta abar...
HANSGROHE kanilen banatzailea
Zoru erradiatzailea
Eguzki-energia
Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Ongi etorri, JULEN. Zure ama, aitta eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JULEN, atzo 6 urte egin zenduazen-eta. Patxo mordua, pirata mutil haundi, famelixaren eta, batez be, Eleneren partez.



Zorionak, INHAR, haraiñegun bost urte bete zenduazen-eta. Muxuak etxekuen eta, batez be, Martxel eta Liberen partez.



Zorionak, UNAX Gisasola Egidazu, gaur zortzi urte egitten dozuz-eta. Ondo-ondo pasa. Famelixaren partez.



Zorionak, AIORA, domekan lau urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa eguna, potxola! Etxekuen partez.



Zorionak, MARA!!!, domekan 5 urte beteko dozuz-eta. Patxito pillua famelixakuen eta, batez be, zure anaixa Oxelen partez.



MARKEL Caballero Cobos (urriak 10). Zorionak, amatxo! Markel eta aittaren partez.



Zorionak, MIKEL, bixar hiru urte egingo dozuz-eta!!! Izeko eta aiton-amonaren partez.



Zorionak, PAUL Urizar Arruti, gaur bost urte betetzen dozuzelako. Muxuak famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKHI, bixar sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PERU, gaur dozena bat urte beteko dittu-eta gure "txikixak". Etxekuen partez.



Zorionak, JAIONE eta MARA. Etxekuen partez! Eutsi urte askuan irrifar horri!

## hildakoak

- **Patxi Malaxetxeberria Maguregi.** 56 urte. 2015-X-7.
- **Ignacia Carrera Arizaga.** 2015-X-7.
- **Josefina Prieto Ibañez.** 84 urte. 2015-X-8.
- **Dolores Salas Maquinay.** 83 urte. 2015-X-10.
- **Jesusa Belaustegi Urionabarrenetxea.** 80 urte. 2015-X-10.
- **Rosario Arriola Garate.** 99 urte. 2015-X-11.
- **Felipe Iriondo Gandiaga.** 89 urte. 2015-X-12.
- **Maria Garagarza Osoro.** 87 urte. 2015-X-12.
- **Mª Carmen Loiola Bergara.** 94 urte. 2015-X-13.

## jaiotakoak

- **Malen Sanchez Gutierrez.** 2015-X-4.
- **Nahia Gil Gonzalez.** 2015-X-5.
- **Nabil El Allali El Ghabali.** 2015-X-6.
- **Mohamed Hida Atmani.** 2015-X-7.
- **Alex Bastida Temprano.** 2015-X-8.
- **Julen Azketa Blanco.** 2015-X-8.
- **Markel Caballero Cobos.** 2015-X-10.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**17an:** 19.45, 22.30
**18an:** 20.00
**19an:** 20.30

### "La playa de los ahogados"

*Zuzendaria:* **Gerardo Herrero**




**(2 ARETOAN)**
**17an:** 17.00, 19.45, 22.30
**18an:** 17.00, 20.00
**19an:** 20.30

### "Amama"

*Zuzendaria:* **Asier Altuna**




**(ANTZOKIAN)**
**17an:** 17.00 (1 areto), 19.45, 22.30
**18an:** 17,00 (1 areto), 20.00
**19an:** 20.30

### "La cumbre escarlata"

*Zuzendaria:* **Guillermo del Toro**




**(ANTZOKIAN)**
**17an:** 17.00
**18an:** 17.00

### "Pinocho y su amiga Coco"

*Zuzendaria:* **Anna Justice**



# BARIXAKUA 16

### GAZTELEKUA
**16.30.** Serpentinekin eskulanak. Indianokuan.

### BILERA
**19.00.** Sanandresak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Kultun.

### HITZALDIA
**19.00.** *"Los hongos alucinógenos en la cultura de los pueblos"*, Pedro Arrillagaren eskutik. Eibarko XVII. Jardunaldi Mikologikoen barruan. Portalean.

### PINTXO-POTE BEREZIA
**19.30.** Urdaizpiko onduarekin. Jerez de la Fronteratik aditua etorriko da. Valle tabernaren 100. urteurrena ospatzeko. Valle tabernan.

### KONTZERTUA
**20.30.** Molto Vivace taldearen kontzertua, Eibarko XXII. Musikaldiaren barruan. 5 euro. Coliseoan.

# ZAPATUA 17

### JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK
**08.15.** Ikastolako mendi irteera (Ego-Gainen). Jasotako espezieak Deporrera eramango dira, aukeratu eta sailkatzeko.
**17.00.** Kirol anitzak T. Etxebarria kalean, ELA elkartearen eskutik.
**18.00/22.00.** Perretxiko-pintxo dastatzea, herriko hainbat tabernen eskutik.
**19.00.** Trikipoteoa, Eibarko Trikitilari Gazteen eskutik.
**20.30.** Dee Versions taldearen kontzertua eta erromeria.
**22.00.** Eibar KEko jokalariek sinatutako 15/16 denboraldiko kamisetaren zozketa, ELA-ren alde. Eibarko XVII. Jardunaldi Mikologikoen barruan.

### BAZKARI SOLIDARIOA
**12.00.** Umeendako sukaldaritza tailerra, Mireia Alonsoren eskutik.
**14.00.** *"Jana ez da txantxa"* bazkari solidarioa. Untzagan (karpan).

### 1960-AN JAIOTAKOAK
**12.30.** Urte horretan jaiotakoen ospakizunaren hasiera. Untzagan.

### UMEENDAKO TAILERRAK
**16.00/17.30.** Eibar KE-ren ikurra aurpegian margotzeko tailerra. El Corte Inglesean.
**18.00.** Umeendako Halloween tailerra. El Corte Inglesean.

### GAZTELEKUA
**16.30.** Play/Wii eta serpentinekin eskulanak. Indianokuan.

### EMANALDI POETIKO-MUSIKALA
**20.00.** *"Errepublikako emakumeen omenaldia. Emakume olerkarien memoria historikoa"*. Andrea Uña, Mª Angeles Igartua, Adolfo Castaños, Maite Lorenzo eta Rafa Herce, Paco Marin abeslariak lagunduta. Topalekuan.

# DOMEKA 18

### JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK
**10.00.** Perretxiko Jaia: jasotako espezieen erakusketa. T. Etxebarria kalean. Produktu mikologikoak eta gastronomikoak salgai Mikel Lasaren eskutik. Perretxikoen dastatze bazkaria Klub Deportiboan.

### KONTZERTUA
**12.30.** Eibar K.E.-aren 75. urteurrenarena, Eibarko Musika Bandaren eta Sostoa abesbatzaren eskutik. Coliseoan.

### GAZTELEKUA
**17.00.** Serpentinekin eskulanak. Indianokuan.

### MUSIKA EMANALDIA
**19.00.** Nuria eta Sofia eibartarrena. Jarraian *"Colon...izando"* umorezko antzezlana. 10 euro (8 euro aldez aurretik erosita). Espaloia kafe antzokian (Elgetan).

# ASTELEHENA 19

### ONDO EGINDAKO LANA
**19.00.** Solasaldia, euskeraz, Ondo Egindako Lana programaren barruan: Aitor Gorosabel (Su Ta Gar) eta Jagoba Arrasate (foball entrenatzailea). Armeria Eskolan.

# MARTITZENA 20

### IKASTEN
**16.00.** Joskintza tailerra. Portalean.

### BATZAR IREKIA
**19.00.** Espainiako hauteskundeak lantzeko eta Eibarko EH Bilduren urteko plangintzaren nondik norakoak azaltzeko. Portalean (ikastaro gelan).

### HITZALDIA
**19.00.** *"Teknologia berrien erabilera osasuntsua eta arrisku gabekoa"*, Gurasoak Berbetan-en barruan. …eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuartean).

# EGUAZTENA 21

### EIBARKO KANTUZALEAK
**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

# EGUENA 22

### AUZOETARA BISITA
**11.00.** EH Bilduko ordezkarien bisita Sautxi-Eguzki Begi-Apalategi ingurura

### KALEETAN KANTUZ
**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## erakusketak

**✔ Urriaren 18ra arte**

***"ERTIBIL BIZKAIA 2015"*** erakusketa ibiltaria. *Portalean.*

***"ERREPUBLIKAKO EMAKUMEEN OMENALDIA. EMAKUME OLERKARIEN MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATUZ"****. Topalekuan.*

**✔ Urriaren 31ra arte**

***IÑAKI CAMPOSEN*** *argazki erakusketa. Ez Dok tabernan.*

***"RALLY DEPOR 2015"*** *argazki erakusketa. Portalea jatetxean.*

***JUAN ANTONIO PALACIOSEN*** *argazki erakusketa. El Ambigu tabernan.*

***"FRANK SINATRAREN MENDEURRENA (1915-2015)"*** *pintura erakusketa. Untzagako Zentro Sozialean.*

## lehiaketak

✔ **San Andres Bertso-paper lehiaketa**
Informazioa eta lanak aurkeztea: **Azaroaren 2ra arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 - solairuartean).

✔ **Eibar Beldur Barik 2015**
Izen-ematea: Internet-en, beldurbarik.org helbidean. **Azaroaren 11ra arte**. Informazio gehiago: Berdintasun Arloa (Portalea, 4. pisua; 943708440; berdintasuna@eibar.eus) eta Andretxea (Zezendibe, 9 behea; 943700828; andretxea@gmail.com).

## ikastaroak

✔ **Jabetze Eskolako ikastaroak**
**Noiz eta non:** Iraila eta abendua bitartean, Andretxean eta Portalean.
**Eskaintza:** *"Nire burua zaindu, zu zaindu"* (gazteleraz, 16 ordu, izen-ematea urriaren 19ra arte); eta *"Transfeminismoa"* (gazteleraz, 8 ordu, azaroaren 6ra arte).

## telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 20 15 25 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 901 20 20 20 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Mendaro osp. | 943 03 28 00 |
| Anbulatorioa | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 902 54 32 10 |
| Lurraldebus | 943 00 01 17 |
| Pesa | 900 10 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 |
| | 943 20 13 25 |
| Alkohol.Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon/Alateen | 650 26 59 63 |

## diru-laguntzak / bekak

✔ **Umeak Eskolara.** Eskaerak: **Urriaren 30era arte**, Eibar Merkataritza Gune Irekian.
✔ **Ikasleentzat.** Eskaerak: **Urriaren 30era arte**, Eibar Merkataritza Gune Irekian.
✔ **Langileak kontratatzeko.** Eskaerak: **Urriaren 30era arte**, Pegoran.
✔ **Ekintzaileentzat.** Eskaerak: **Azaroaren 9ra arte**, Debegesan (Vanesa Hortas, ekintzaile@debegesa.eus / 943820110).




## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 3 | | | 6 | 8 | | 4 | |
| | | | 9 | | | | 2 | 3 |
| 4 | | | | 7 | | | 1 | |
| 3 | | | | 5 | | 6 | 9 | |
| | | 4 | | | | 2 | | |
| | 9 | 5 | | 2 | | | | 7 |
| | 7 | | | 9 | | | | 1 |
| 2 | 4 | | | | 6 | | | |
| | 5 | | 7 | 1 | | | 6 | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 8 | 5 | 9 | 3 | 6 | 4 | 2 | 7 |
| 4 | 7 | 9 | 8 | 2 | 5 | 3 | 6 | 1 |
| 2 | 3 | 6 | 1 | 7 | 4 | 8 | 5 | 9 |
| 8 | 4 | 2 | 6 | 1 | 3 | 9 | 7 | 5 |
| 7 | 6 | 1 | 4 | 5 | 9 | 2 | 8 | 3 |
| 9 | 5 | 3 | 7 | 8 | 2 | 1 | 4 | 6 |
| 6 | 9 | 8 | 5 | 4 | 1 | 7 | 3 | 2 |
| 3 | 1 | 7 | 2 | 6 | 8 | 5 | 9 | 4 |
| 5 | 2 | 4 | 3 | 9 | 7 | 6 | 1 | 8 |

AURREKOEN EMAITZA

## farmaziak

✔ **barixakua 16**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

✔ **zapatua 17**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✔ **domeka 18**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

✔ **astelehena 19**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **martitzena 20**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✔ **eguaztena 21**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✔ **eguena 22**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **barixakua 23**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI
**Elorza (J. Gisasola, 18)**

# iragarki laburren tartea

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta ganbara. Tel. 615-759399.
– Pisua salgai Jardiñeta kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 90.000 euro. Aukera bikaina. Tel. 650-628297.
– Pisua salgai Polonia Etxebarria kalean. 4 logela, egongela, sukaldea eta bainugela osatua eta komuna. Despentsa eta ganbara. Tel. 670-757393 eta 664-405112.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. Hobe altzaririk gabe. Tel. 649-978832.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-032117.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– 200cc Maxi Scooter Piaggio-Vespa motorra salgai. Kofreekin edo gabe. Egoera onean. 600-700 euro. Tel. 628-521115.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Garaje bikoitza salgai Bittor Sarasketa kalean. Tel. 617-336462.
– Taberna traspasatzen da Eibar erdialdean. Martxan, bezero finkoekin. Tel. 695-711730.

### 3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai San Andres pasealekuan. Tel. 660-316903.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak (baita gauez ere) edo umeak zaintzeko. Tel. 631-417995.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-820508.
– Txalapartaria eskaintzen da ezkontza, omenaldi, azoka etabarretan jotzeko. Tel. 688-611021 eta 943-833939.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 661-082294.
– Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko (baita gauez ospitalean ere) eta garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-587259.
– Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko (baita gauez ospitalean ere) eta garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-966192.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 653-075865.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 636-815924.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-817384.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita umeei eskolako lanekin laguntzeko ere. Tel. 622-225561.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketak egiteko. Tel. 685-768026.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... Tel. 629-869572.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 672-337819.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-276360.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-564674.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein ordutan. Erreferentziak. Tel. 631-975260.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 638-908730.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 655-231059.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 606-906729.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketak egiteko. Tel. 617-084256.
– Gizonezkoa eskaintzen da gizon nagusiak zaintzeko. Baita etxeak, ganbarak etabar garbitzeko. Tel. 628-747805.
– Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketak egiteko. Tel. 628-747805.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 602-076486.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-127294.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-123667.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 629-776212 eta 611-226678.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 653-075865.
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-891885.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 661-001246.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 631-282203.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 677-259560.
– Mutila eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 661-064027.
– Gizon arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatrian graduatua. Alzheimer gaixoekin esperientzia. Autoarekin. Tel. 626-168258.
– Neska eskaintzen da arratsaldez eta gauez nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
– Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 617-905841.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 652-032117.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-192769.

### 4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 657-723075.
– Neska behar da Zuzenbide ezaupideekin noizbehinkako lana egiteko. Deitu goizez. Tel. 943-120949.
– Autonomoa behar da, furgonetarekin, Eibarren banaketak egiteko. Tel. 616-642631.
– Emakume euskalduna behar da baserrian nagusia zaintzeko. Autoarekin. Tel. 688-649596.
– Banatzailea behar da Txiokan gidatzeko baimenarekin. Tel. 943-206346.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Unibertsitateko neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Esperientzia ulermen arazoak dituzten umeekin. Banaka. Merke. Tel. 625-019711.
– Matematikak, Fisika, Kimika, Lengoaia, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen ditut. DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarreko klaseak ematen ditut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
– Euskerazko klaseak ematen ditut: azterketetarako prestaketa, IVAP, HABE, EGA,... Ume eta helduentzat. Baita on-line ere. Tel. 620-608065. Luz Mar.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Umeendako aulkia salgai. Beltza, McLaren Techno-XT markakoa. Bere neurrirako plastikoarekin. 180 euro. Tel. 646-892162.
– Ontzi-garbigailua salgai. Balay markakoa. 100 euro. Tel. 636-906921.
– Bigarren eskuko umeendako Bugaboo-a salgai. 150 euro. Tel. 649-978832.
– Spin Ryder 3 erroberako patinetea salgai. Merke. Tel. 617-256466.
– Compex elektroestimuladorea salgai. Ia berria, gutxi erabilia. Tel. 666-444074.

### 6.2. Eman

– Ordenagailurako aulkia oparituko nuke. Bizkarralde handia eta gurpilekin. Tel. 636-906921.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Ikusteko betaurrekoak euren fundan aurkitu nituen zapatu gauean Errebalgo parkinean. Tel. 687-472084.
– Irailaren 25ean, Berbetan jaialdian, 5 urteko umearen txamarra berdea aurkitu genuen Untzagan. Tel. 943-200918.

# Kultu: 21 urte eibartarron zerbitzura

ZULOAGATARREN, 3 TEL. 943 20 84 39

Eskerrik asko GUZTIOI!!!




Zure enpresa erakusteko leku aparta

# GIDA

## KOMERTZIALA 2016

GIDA 2016



Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da.

...eta kitto! Astekaria

publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus




Entzumen-test integralak

Audifono digitalak

Neurrira egindako tapoiak

Konektibitate-soluzioak

Mantentze-tekniko integrala

Neurrira egindako finantziazioa

audiocentro
Igmar

Julian Etxeberría, 2
20600 Eibar
Tel. 943 20 26 99

Audioprotesis goi mailako teknikaria: Antón Martinena